

UDAL PRESTAZIO EKONOMIKOEN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

1985. urtean du jatorria Udal Prestazioen Programak, orduan izan baitzuen benetako hasiera Udalaren gizarte-zerbitzuen hazkundeak, zeinen berrespenik sendoena aurrekontu-zuzkidura izan baitzen, eta antolakuntza-egitura berria. Ez baliabide ekonomikorik, ez beste inongo gizarte-babeserako sistemaren estaldurarik —pentsiorik, langabezia-subsidiorik edo besterik— ez zuten pertsonen beharrei erantzuteko sortu zen programa, eta, beraz, izaera osagarria du.

1989. urtean Pobreziaren kontrako Plana jarri zen abian Euskal Autonomia Erkidegoan, zeinen izaera juridikoa ezaugarritzen baitute gizarte-babeserako gainerako prestazioen osagarri diren helburu asistentzialeko prestazio ekonomikoek —Erkidegoaren aurrekontu orokorren bitartez, eta orobat hainbat erakunderen ekarpenen bitartez finantzatuak—.

1999ko irailaren 17an jarri zen indarrean Udal Prestazioen Programa arautuko zuen lehen ordenantza, non biltzen baitzen Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak udal prestazioak emateko aintzat hartu beharreko araudia.

Udal Prestazioen Programa ordenantza berri baten bitartez egokitzeko premia ekarri du berekin lege-garapenak, eta hori da hurrengo kapituluetan garatzen dena. Honako lege-aldakuntza hauek izan dira kontuan ordenantza lantzeko orduan:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak helburu du pertsona, bizikidetzaren unitate eta talde guztien gizarte-inklusioa, autonomia eta gizarte-ongizatea ahalbidetzea, sustatu, aurreikusitako eta babesa nahiz laguntza emateko funtzioak betetz, titulartasun publikoko nahiz pribatu hitzartuko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduen bitartez.
- Era berean du xede lege horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio eta zerbitzuetara sarbidea bermatzea pertsonen — urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan arautu zen katalogo hori, eta orobat mugatu administrazio publikoek zerbitzu eta prestazio ekonomikoak dagokienez duten obligazioa—.
- 2008ko abenduaren 23an jarri zen indarrean Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea, zeinek helburu baitu Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.
- 2010ean, berriz, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretua onetsi zen. 1989an Pobreziaren kontrako Plan Integrala abian jarri zenez geroztik garatu diren arau horiek guztiek ezarri zituzten Udal honen egungo Udal Prestazioen Programaren oinarriak; eta esku-hartze pertsonalizatuaren ereduari eusten dio programa horrek, arreta komunitarioaren ikuspegira moldatutako gertuko esku-hartzearen ereduari.
- Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak marko juridiko propioa eskaintzen die euskal udalei, eta, eskumenak argitzeaz batera, segurtasun juridikoa ematen, baita beren autogobernua bideratzeko eta beren xede nagusia betetzeko —herritarren eskariei erantzuteko— aukera ere. Legeek edo foru-arauek udalei aitor diezazkieketen eskumen propioen artean, legearen 17. artikuluan jasota dago diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak uste sendoa du Udalaren gizarte-zerbitzuak protagonista direla gizarte solidario, kohesionatu eta inklusibo baten eraikuntzan. Pertsonarengan zentratutako esku-hartzeko eredu zientifiko-teknikoan oinarrituta dago bere lan-metodologia: entzute aktiboan oinarritutako laguntza-harreman bat ezartzen delarik

lehenik, orientabidea, laguntza eta aholkuak ematen dira ondoren, adostasuna bilatzen, eta pertsona eta taldeek beren autonomia eta kontrola areagotzeko laguntza egokiak eskaintzen.

Pertsonarekiko zuzeneko interakzioan funtsatzen den esku-hartze profesionalaren markoan biltzen da baliabideen tramitazioa. Hartara, lehen baliabidea, eta funtsezkoa, profesionala bera egokitzen da. Ondoren, bidezko bada, haren ongizatea hobetzeko egokitzen jotzen diren beste baliabide eta prestazio osagarri batzuk baloratu, proposatu eta tramitatzen dira. Nolanahi ere, esku-hartze orok funtsezko prozesu hauek hartzen hartzen ditu barne: pertsona edo bizikidetzaren unitateari harrera egitea, premia eta gaitasunen ebaluazioa egitea, modu partekatuan Esku Hartzeko Plana landu eta diseinatzea, plana ezartzea, jarraipena egitea eta ebaluazioa.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- Erregimen juridikoa.

Araudi honetan xedatzen denak arautuko ditu Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak ematen dituen udal prestazioak, eta orobat araudi hori aplikatu eta garatzeko ematen diren xedapenek.

2. artikulua.- Definizioa.

Aldian-aldian ematekoak ez diren udal prestazioak dira, izaera ekonomikoa dutenak, gizarte-esklusioa prebenitu, ekidin edo arintzeko beharrezko diren berariazko gastuei aurre egiteko nahiko baliabiderik ez duten Gasteizko udalerriko pertsonen zuzenduak.

Teknikarien balorazio profesionalan oinarrituko da beti prestazio-programa hau, ezen ez balorazio politikoan.

Gizarte-langileak dagokion diagnostiko soziala egin ondoren, Familian Esku Hartzeko Planaren garapenari lotuta egongo da halako prestazioak ematea; izan ere, premia-egoera sortu duten faktoreei konponbidea bilatzera zuzenduta egongo da plan hori, hartara prestazio hauekiko mendetasuna ekiditeko, aldian-aldian emateko ez direnez gero, baizik eta salbuespenekoak.

Prestazio-programa honetaz gain, esku hartzeko —banaka, familian, taldeka edo komunitatean— beste hainbat baliabide ere badituzte Udalaren gizarte-zerbitzuek, antzemandako beharrezanean erantzuteko.

3. artikulua.- Helburuak.

- ⇒ Beste sistema publiko batzuek estaltzen ez dituzten oinarritzko beharrei —elikadura, etxebizitza, bizilekua, jantziak, hezkuntza eta prestakuntza, osasun-laguntza— aurre egiteko nahiko baliabide ekonomikorik ez daukaten pertsona eta bizikidetzaren unitateei laguntzea.
- ⇒ Nahiko baliabide ekonomikorik ez edukitzeak eragiten dituen ondorio fisiko, psikiko eta sozialak —pertsonak gizartean behar bezala moldatzea galarazten dutenak— prebenitu eta saihestea.
- ⇒ Pertsonak eta familiak beren ingurune komunitarioan integra daitezela erraztea.

4. artikulua.- Prestazioen sailkapena.

1. OINARRIZKO BEHARRAK.
 - a. Oinarrizko beharra.
 - b. Oinarrizko estalduraren prestazioa.
 - c. Jantoki soziala.

2. ETXEBIZITZA-PRESTAZIOAK.
 - a. Oinarrizko etxebizitza-gastuak.
 - i. Alokairurako bermeak.
 - ii. Alokairua.
 - iii. Amortizazioa.
 - iv. Energia-gastua.
 - v. Zorra alokairuan edo amortizazioan.
 - vi. Zorra energia-gastuan.

 - b. Aparteko etxebizitza-gastuak.
 - i. Etxebizitzako egokitzapen edo konponketak —oinarrizko beharrak—.
 - ii. Instalazioak, premia-premiazko altzariak eta linea zuriko etxetresna elektrikoak.

3. PRESTAZIO SOZIOSANITARIOAK.
 - a. Begietako protesiak.
 - b. Hortzetako protesi eta konponketak.
 - c. Audiofonoak.
 - d. Gastu farmazeutikoak.

4. GIZARTERATZEKO LAGUNTZAK.

5. GASTU PERTSONALETARAKO PRESTAZIOA.

6. HILETA-GASTUETARAKO PRESTAZIOA.

5. artikulua.- Baldintza orokorrak.

1. Behar sozialak dituzten eta gizarte-babeserako bestelako sistemen estaldurarik ez duten pertsona eta bizikidetzaren unitateei zuzenduta dago udal prestazioen programa.
2. Izaera finalista dute prestazioek, eta, horrenbestez, ezingo dira bestetarako baliatu.
3. Izaera subsidiarioa dute prestazioek, eta, halakorik denean, indarrean dagoen legedian aurreikusten den edozein prestazio eta baliabide sozialen osagarria.
4. Agiri honetan arautzen diren prestazioak Gasteizko udalerrian garatuko dira, Udalak gizarte-zerbitzuen arloan dituen eskumenen esparruan, eta beti ere aurrekontu-zuzkidurak ezartzen dituen mugen barruan. Nolanahi ere, eskariaren gehikuntza egokituz gero, non eta aurreikusitakoa baino gastu handiagoa sortzen den, behar den neurria egokitu da partida, baldin eta —aurrekontuen arloan indarrean dagoen legediaren ildotik— gastu hori estaltzeko nahiko finantza-baliabiderik badago.
5. Borondatezkoak,aldi baterakoak eta apartekoak izango dira prestazioak, esan nahi baita finkatzen den aldirako emango direla, nahiz eta berritzaile egongo den eman zireneko baldintzek bere horretan jarraitzen badute, eta, beti ere, prestazioen hartzaileak bere betebeharrak betetzen baditu, eta orobat Familian Esku Hartzeko Plana.

6. Gizarte-babeserako beste sistema batzuen bitartez estali ezin den oinarrizko premiatzat jo beharko dute Udalaren gizarte-zerbitzuek planteatzen den eskaria.

7. Udal prestazioen titularrek eta bizikidetzta-unitateko gainerako kideek Familian Esku Hartzeko Plan bat sinatuko dute Udalaren gizarte-zerbitzuekin, non zehaztuko baitira esku-hartze profesionalaren helburua, garatu beharreko ekintzak eta inplementatu beharreko baliabideak. Familian Esku Hartzeko Planaren jarraipena egingo da Udalaren gizarte-zerbitzuetatik, baita prestazioa zertarako eman zen horretarako modu egokian erabiltzen den ikuskatu ere.

8. Udalak lehenago gizarte-prestaziorik eman izana ezingo da aurrekaritzat argudiatu besterik emateko orduan.

9. Prestazioak besterenezinak izango dira, eta, beraz, ezingo dira betebeharren berme gisa eskaini, osorik nahiz partez besteri laga, konpentsazio edo deskontuaren objektu izan —salbu eta prestazio gisa oker jasotako diru-kopuruak itzularazteko—, edo atxikipen edo bahituraren objektu —salbu eta aplikatzekoa den Estatuko legedi orokorrean jasotzen diren kasuetan eta aurreikusitako mugekin—.

10. Behar diren bitartekoak baliatuz, eskatzaileen egoera ekonomiko, laboral eta soziala egiaztatuko dute Udalaren gizarte-zerbitzuek, baita prestazioak zertarako ematen diren horretarako baliatzen diren eta Familian Esku Hartzeko Plana betetzen den ere, eskatzaileen intimitatea eta autonomia pertsonala errespetatuz beti.

11. Prestazioen zenbatekoa zehazteko —eta eskatzaileak guztira zein baliabide dituen—, bizikidetzta-unitate ekonomiko independenteko kide guzti-guztiak hartuko dira kontuan. Norberaren edo besteren konturako lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik sortzen diren errendimenduak hartuko dira kontuan baliabideak zenbatzeko orduan, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen II. tituluko —Prestazio ekonomikoak— II. kapituluan —Baliabide-maila zehaztea— xedatutakoaren ildotik.

6. artikulua.- Baldintzak.

1. Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izango dute Udalaren gizarte-prestazioak jasotzeko eskubidea, profesionalak baloratu ondoren:

- Adinez nagusia izatea.
- Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea, eta benetako bizilekua bertan eduki izana, etenaldirik gabe, gutxienez ere eskabidea aurkezten den eguna baino sei hilabete lehenagotik, premia-premiazko kasuetan izan ezik. Baldintza hori ez da nahitaez bete beharrekoa izango jantoki sozialaren prestazioaren kasuan.
- Nahikoa baliabide ekonomikorik ez edukitzea —edozein kontzeptu dela medio, eta bizikidetzta-unitateko kide guztiak aintzat harturik—, prestazio horietarako ezarritako baremoa gainditzen duenik.
- Titularra eta bizikidetzta-unitateko kide guztiak gertu agertzea Familian Esku Hartzeko Planean finkatzen diren ekintzetan parte hartzeko.

2. Etxebizitza edo bizileku batean bizi diren pertsonak edo pertsona-taldeak joko dira bizikidetzta-unitate ekonomiko independentetzat:

- Etxebizitza edo bizileku batean bakarrik bizi diren pertsonak.
- Etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, ezkontza bidez nahiz antzeko harreman mota iraunkorren baten bidez, adopzioz edo, hurrenez hurren, laugarren edo bigarren mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasunez lotuak daudenak. (Ezkontzaren antzeko harreman iraunkorrik dagoela modu frogagarrian egiaztatu beharko da.)
- Aurreko atalean aipatzen den lotura moduetakoren baten bidez elkartuta egon gabe ere etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, baldin eta horrela bizitzeko premia larria badute.

- o Salbuespen gisa, etxebizitza edo bizileku berean bizi diren pertsonak, nahiz eta gorago aipatutako unitateetarekin batera bizi, bizikidetzaren unitate ekonomiko independentetzat har daitezela proposatzeko dute Udalaren gizarte-zerbitzuek, baldin eta beste unitate horiek bizitzeko oinarrizko gastuari aurre egiteko nahikoa baliabiderik badute.
- o Bizikidetzaren unitateko kideak ezingo dira bertatik bereizi prestazio-programa honen laguntzarekin, ez bada, beren egoera psikosoziosanitarioa dela eta, erreferentziako profesionalen diagnostikoan eta esku-hartzeko planean horren premia aitortzen delako, egoera azaltzen duen txostena dela medio.

3. Modu independentean bizi nahi duen pertsona batek edo gehiagok bizitzeko ohiko lekutzat baliatzen duten marko fisiko oro joko da etxebizitza edo bizilekutzat.

Orobat joko dira etxebizitza edo bizileku independentetzat bizileku kolektiboen marko fisiko hauek ere:

- Turismo-aloiamendurako establezimenduak, hotelak izan nahiz besterik izan.
- Aldi baterako harrera-zentro publikoak edo, bestela, irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen menpekoak, Administrazioak behar bezala akreditatuak.
- Alokairu-erregimenean dauden etxe partikularrak, parte bat berralokatu delarik.
- Etxe partikularrak, parteren bat ostatu emateko kontratu baten bitartez okupatuta dagoelarik.
- Etxe partikularrak, non hainbat pertsonak modu kolektiboan alokairu bera partekatzen duten, eta guztiak diren errentari, batera.

4. Bai pertsonak edo bizikidetzaren unitateak baldintzak betetzen ez dituzenean, bai detektatutako premia jasota ez dagoenean salbuespen-egoerak proposatzeko aukera ematen die ordenantza honek Udalaren gizarte-zerbitzuei. Horretarako, salbuespen-egoera jasotzen duen txostena egin beharko dute, balorazio profesionala objektibotasunez egiteko irizpide hauek aintzat harturik:

- a) Bizikidetzaren unitatean adingabekorik, adinekorik, dibertsitate funtzionala duen pertsonarik edo gaixorik dagoen, zeinentzat premia-premiazko gaien gabezia arrisku berezia izan bailitekeen.
- b) Momentua laguntza emateko egoki egiten duten zirkunstantziak egokitzen diren, baldintzak bete arte itxosteak desagerraraz ditzakeenak. Bortizkeria fisikoaren edo psikikoaren biktimen eta babesgabatasun-egoeren kasuan zuhertasun-printzipioa aplikatuko da.
- c) Pertsonak ez badu betetzen udalerrian sei hilabete lehenagotik erroldatuta egotea eskatzen duen baldintza, alderdi hauek hartuko dira kontuan salbuespena egin behar den baloratzeko: Laguntza familiarra, soziala eta afektiboa emateko sarerik duen bertan; osasunaren alorrekoak; etxebizitza posiblea; prestakuntza; irizpide humanitarioak, eta asilo edo babesleku ematearen ingurukoak.
- d) Etxebizitzaren alorreko salbuespenak:
 - Salbuespen gisa, gizarte larrialdiko laguntza edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen duten pertsonen laguntza bat emateko aukera baloratzeko da, etxebizitza alokatzeko gastuei aurre egiteko, haren osagarri gisa, baldin eta bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoak bideraezin egiten badu alokairua ordaintzea eta etxebizitza galtzeko arriskua badago. Halakoetan, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak eta gastuen balantzea jaso beharko da salbuespena egiteko txostenean, non egiaztatzen den egoera hori, eta arazoari aurre egiteko neurriak Familiarren Esku Hartzeko Planean. Bizikidetzaren unitateak gerora egokitutako zirkunstantziak edo aurreikusitako gabeko aparteko gastuak baditu aplikatuko da salbuespena.

- Eskabidea egiten duen pertsona edo bizikidetzaren unitatea alokairu-kontraturik ez daukan etxebizitza batean bizi bada, alokairurako prestazio bat eman ahal izango da, hiru hilabetez, modu frogagarrian egiaztatuta bada hura bertan bizi dela eta alokairua ordaintzen duela, eta hala jasotzen bada salbuespena egiteko txostenean. Halakoetan, egoera erregularizatzeko edo beste bizileku bat bilatzeko neurriak jaso beharko dira Familian Esku Hartzeko Planean.
- Eskatzaileak, eskabidea egiteko momentuan, ez badauka bizilekurik, eta kalean badago, edo ostatu emateko baliabide batean —harrera sozialerako udal zentroa, berehalakoan hartzeko zentroa, larrialdiko etxebizitza—, eta kontraturik ez duen edo erroldatzen uzten ez dioten gela batera sartu nahi badu, gela alokatzeko prestazioa eman ahal izango da, hiru hilabetez —gehi gela hartzeko sarrera, behar izanez gero—, modu frogagarrian egiaztatuta bada hura bertan bizi dela, eta hala jasotzen bada salbuespena egiteko txostenean. Halakoetan, egoera erregularizatzeko edo beste bizileku bat bilatzeko neurriak jaso beharko dira Familian Esku Hartzeko Planean.

7. artikulua.- Hartzaileen betekizunak.

Betekizun hauek izango dituzte titularrek eta bizikidetzaren unitate ekonomiko independenteko kideek:

- a) Prestazioa zertarako eman den, horretarako baliatzea.
- b) Eskatzaileari nahiz bizikidetzaren unitateko edonori legokiokeen eduki ekonomikoko eskubide edo prestazio oro baliaraztea.
- c) Baldintzak betetzeari dagokionean gerora egokitutako edozein egitate hamabost egun naturaleko epean komunikatzea; zehatzago esanda, bizikidetzaren unitatearen osarari, diru-sarrerei eta baliabide ekonomikoak edo ondare-ondasunak aldatzeari dagozkienak.
- d) Titularraren ohiko bizilekuaren helbideari dagokionez aldaketarik gertatuz gero, 15 egun naturaleko epean komunikatzea.
- e) Behar ez bezala jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea, edo jaso behar ez zuten diru-kopurua. Horri dagokionez, ofizioz ekin ahal izango dio Udalak onuradunaren bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagozkion prestazioetatik konpentsatu edo deskontatzeari. Konpentsazioa edo deskontua egitekotan, epeak, horien kopurua eta zenbatekoak zehaztuko dira.
- f) Familian Esku Hartzeko Plana negoziatu, sinatu eta betetzea.
- g) Udal-administrazioaren aurrera agertu eta laguntzea.
- h) Emandako diru-laguntza justifikatzea, fakturak edo gastu-ordainagiri eta ordainketa-egiaztagiriak aurkeztuz, hala egin beharra dagoen prestazioak izanik.
- i) Enplegu-eskaintza egokiak onartzea. Halakotzat joko dira:
 - Eskatzailearen ohiko lanbideari egokitzen zaizkion enplegu-eskaintzak.
 - Izan zuen azken lanean jardun zuen lanbidearekin bat egiten duten enplegu-eskaintzak.
 - Bere gaitasun fisikoei eta prestakuntzari egokitzen zaizkion enplegu-eskaintzak.

Baldin eta enplegua eskuratzeak:

- * berekin badakar lanpostua eskaintzen zaion sektorean aplikatzekoa den hitzarmenean finkatutako hileko ordainsari gordinaren gutxienez % 75 jasotzea,
- * berekin badakar diru-sarreraren gutxienez % 30eko gehikuntza garbia, DBE eskuratzeko ezarritako gehieneko mugen aldean, gastu gehigarri hauek deskontatu ondoren:
 - administrazioak estaltzen ez dituen garraio-gastuak,
 - adingabekoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak zaintzeak sortzen dituen gastuak, barne harturik haur-eskolako, eguneko zentroko nahiz etxean laguntzeko zerbitzuko gastuak, Administrazioak estaltzen edo konpentsatzen ez dituenak.

8. artikulua.- Baremoak.

Udalaren prestazio-programa honetarako ezartzen diren baremoak Diru-sarrerak Bermatzeko Legean finkatutakoak izango dira, bai edozein eratako diru-sarrerei dagokienez, bai erabilgarri edo gauzagarri dagoen ondare-balioari dagokionez, duen izaera osagarria kontuan izanik beharrezkotzat jotzen baita hala izatea. Nolanahi ere, ez da aplikagarri izango, programa honetan, enplegua sustatzeari dagokion araudia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean finkatu eta eguneratzen dira horiek urtero. Beraz, II. kapituluan jasotzen diren zenbatekoak urtero eguneratu ahal izango dira.

Bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guzti-guztiak hartuko dira kontuan.

Norberaren edo besteren konturako lanetik, gauza daitekeen ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein kontzeptutatik sortzen diren errendimenduak zenbatuko dira.

9. artikulua.- Gehieneko zenbatekoa.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren, etxebizitzarako prestazio osagarriaren, gizarte larrialdiko laguntzaren nahiz udal prestazioaren zenbatekoa ezingo da izan inolaz ere interesdunari legokiekkeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren % 175etik gorakoa.

II. KAPITULUA. PRESTAZIOEN IZAERA.

10. artikulua.- Oinarrizko beharrak.

a) Oinarrizko beharra.

Kontzeptu hauek barne hartzen dituen diru-prestazioa: elikadura, higiena, jantzi eta oinetakoak, eta hilean 60 euro arteko botika-gastuak.

Pertsona-kopurua	Zenbatekoa, adingabekorik ez duen bizikidetza-unitatea, euroak hilean	Zenbatekoa, adingabekoak dituen bizikidetza-unitatea, euroak hilean
1	375	
2	522	602
3	621	666

b) Oinarrizko estalduraren prestazioa.

Dirurik gabeko prestazioa, dendetan txartel ez-finantzarioaren bitartez ordaintzeko. Prestazio honek ez ditu estaltzen elikaduraren eta higienearen alorreko oinarrizko gastuak.

Pertsona-kopurua	Zenbatekoa (euroak), hilean
1	175
2	350
3	500

c) Jantoki soziala.

Dirurik gabeko prestazioa, baliabide ekonomikorik ez edukitzearen edo nahikorik ez edukitzearen arazoaz gain beste arazo gehitu batzuk —hala nola aurrekontua antolatzeke trebetasunik ez, otorduak prestatzeko aloiamendu-arazoak— dituzten pertsona bakarrek bizikidetz-unitateei zuzendua.

Salbuespen gisa, bere ardurapean adingabekorik ez duen bizikidetz-unitate bereko bi kiderentzat tramitatu ahal izango da jantoki sozialeko prestazioa, aloiamendu-baldintzak otorduak etxean prestatzeko egokiak ez badira. Salbuespena egiteko txostena beharko da.

11. artikulua. Etxebizitza-prestazioak.

Etxebizitza-prestazioak osagarriak izango dira, esan nahi baita gizarte larrialdiko laguntzek aintzat hartzen ez dituzten egoerak arintzeko izango direla, baita aurrekontu-mugak direla eta heldu ezin zaien zenbait egoera ere.

Etxebizitza berean, gehienez bi bizikidetz-unitatek eskuratu ahal izango dute horrelako prestazioa. Alokatzeko edo amortizatzeke eskatzen bada etxebizitza-laguntza, eta bizikidetz-unitate horietako kideen artean ahaidetasun-harremanik badago, bizikidetz-unitateetako batek bakarrik izango du eskubidea.

Etxebizitza-prestazioak honela sailkatzen dira:

OINARRIZKO ETXEBIZITZA-GASTUAK.

- o Alokairurako bermeak.

Gehienez 1.200 eurokoa izan ahalko da benetako kostua.

Prestazio hauek ezingo zaizkio tramitatu kontzeptu beragatik eskatzaile berari bost urte igaro arte, salbu eta gizarte-langileak salbuespena egitea proposatzen badu.

Bermea Udalari itzuli beharko zaio, kontratua bukatzean.

Egindako gastuen fakturak edo egiaztagiria aurkeztera behartuko du hartzailea prestazioaren izaera finalistak, edo bestela, hala egin ezean, prestazioak itzultzera.

Hartzaileak ordainketaren jarraitutasuna bermatu beharko du, diru-sarrerara propioak edo prestazioak direla medio.

- Alokairua.

Alokairu-kontratua nolakoa den, horren arabera izango da gehieneko zenbatekoa, eta egoera hauek gerta litezke:

- ⇒ Etxebizitza alokatzeko hileko gehieneko zenbatekoa 250 eurokoa izango da. Ezingo da benetako kostuaren ehuneko 70a gainditu, ahuldade bereziko salbuespeneko kasuetan izan ezik, ehuneko 100era iritsi ahal izango baita horietan.
- ⇒ Etxebizitza beste inorekin batera alokatzeko edo berralokatzeko hileko gehieneko zenbatekoa 125 eurokoa izango da. Ezingo da benetako kostuaren ehuneko 80a gainditu, inolaz ere.
- ⇒ Ostatu hartu, apopilo jarri edo gela bat alokatzeko hileko gehieneko zenbatekoa 125 eurokoa izango da. Ezingo da benetako kostuaren ehuneko 80a gainditu, ahuldade bereziko salbuespeneko kasuetan izan ezik, ehuneko 100era iritsi ahal izango baita horietan.
- ⇒ Hotel edo pentsio batean egoteko hileko gehieneko zenbatekoa 250 eurokoa izango da. Ezingo da benetako kostuaren ehuneko 80a gainditu, ahuldade bereziko salbuespeneko kasuetan izan ezik, ehuneko 100era iritsi ahal izango baita horietan.

- Amortizazioa.

Hileko gehieneko zenbatekoa 250 eurokoa izango da. Ezingo da benetako kostuaren ehuneko 70a gainditu, inolaz ere.

Ohiko etxebizitza erostea helburu duten hipoteka-kredituak bakarrik hartuko dira kontuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte larrialdiko laguntza eskatu aurretik formalizatu direlarik, gizarte-langileak salbuespenekotzat jotzen dituen zirkunstantziak egokitzen direnean izan ezik.

Etxebizitza berriro hipotekatu den kasuetan, hasierako hipotekatik ordaintzeke dagoen zenbatekoa baino ezingo da eskatu.

- Energia-gastua.

Hileko gehieneko zenbatekoa 92,50 eurokoa izango da.

Kontzeptu hauek hartzen ditu: estolderia, zaborrak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, energia eta ura.

- Fede oneko zordunak kaleratzea ekiditea.

Gehienez 1.200 euroko benetako kostua. Zorduntze-aldian gizarte larrialdiko laguntzarik edo helburu bererako beste udal laguntzarik jaso ez bada bakarrik tramitatuko da.

Ezingo zaizkio tramitatu kontzeptu beragatik eskatzaile berari bost urte igaro arte, salbu eta gizarte-langileak salbuespena egitea proposatzen badu.

Hartzaileak ordainketaren jarraitutasuna bermatu beharko du, diru-sarrera propioak edo prestazioak direla medio.

- Zorra, energia-gastuan.

Gehienez 500 eurokoa izango da benetako kostua.

Kontzeptu hauek hartzen ditu: estolderia, zaborrak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, energia eta ura.

- APARTEKO ETXEBIZITZA-GASTUAK.

- Etxebizitzako egokitzapen edo konponketak —oinarrizko beharrak—.

Urteko gehieneko zenbatekoa 900 eurokoa izango da, bizikidetza-unitate bakoitzeko.

Tramitatu aurretik bi aurrekontu aurkezteko eskatuko da, eta gizarte-langileak bisita egin beharko du etxera.

Eskatzailearen etxebizitza partikularrean sortzen diren gastuak eta funtsa hobetzea xede duten auzo-komunitateko aparteko gastuak kontuan hartuko dira, beste erakunderen batek diru-laguntza eman ez badu edo eman ez balezake.

Premia-premiazko obrak bakarrik hartuko dira kontuan, errepikatzen ez direnak, eta, beti ere, funtzionamendu normala zuen etxebizitzako elementu bat ordeztzeko ez bada. Hauek joko dira oinarritzko obratzat: energia elektrikoaren tentsioa aldatzea, gasa instalatzea eta komuna moldatu edo konpontzea.

Lehentasuna emango da etxebizitzan adingabeak, adinekoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak bizi diren kasuetan.

Aldez aurretik, 21 Zabalgunekak kudeatzen dituen diru-laguntzak eskatu beharko ditu eskatzaileak, eta ebazpenaren justifikazioa aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatzea gomendatzen bada 21 Zabalgunetik, itzuli beharrik gabe emandako zenbatekoa adierazten den ebazpena aurkeztu beharko da, eta hori ez dute barne hartuko laguntza hauek.

Komunitateko obren kasuan, obrak egitea onetsi zen jabeekideen bileraren akta aurkeztu beharko da, eta administratzaileak sinatutako agiri bat, non jasotzen den eskatzaileak ordaindu beharreko gastuaren zenbatekoa, baita ordaintzeko modua ere.

Emandako diru-laguntzen ebazpenaren fotokopia.

- o Instalazioak, premia-premiazko altzariak eta linea zuriko etxetresna elektrikoak.

Urteko gehieneko zenbatekoa 900 eurokoa izango da, bizikidetza-unitate bakoitzeko.

Tramitatu aurretik bi aurrekontu aurkezteko eskatuko da, eta gizarte-langileak bisita egin beharko du etxera.

Etxetresna elektrikoaren kasuan ez da beharrezko izango etxera bisita egitea horren premiaren berri ematen duen teknikari baten idazkia edukiz gero.

Aurreko hamar urteetan kontzeptu beragatik beste diru-laguntzarik ez eskatu izana, salbu eta gizarte-langileak salbuespena egitea proposatzen badu.

Premia-premiazko kontzeptuak bakarrik hartuko dira kontuan, errepikatzen ez direnak, eta, beti ere, funtzionamendu normala zuen elementu bat ordeztzeko ez bada.

Lehentasuna emango da etxebizitzan adingabeak, adinekoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak bizi diren kasuetan.

Eskatzaileak ordaindu gabe egon beharko dute faktura edo gastuek.

Kontuan hartuko diren kontzeptuak:

- ⇒ Linea zuriko etxetresna elektrikoak: su edo bitrozeramikak, gehienez 150 euro; hozkailua, gehienez 350 euro; mikrouhin-labea, gehienez 35 euro, eta arropa-garbigailua, gehienez 250 euro.
- ⇒ Altzariak: ohe bikoitza, gehienez 100 euro; banako ohea, gehienez 60 euro; armairua, gehienez 120 euro; ohe bikoitzeko koltxoia, gehienez 120 euro; banako oheko koltxoia, gehienez 100 euro; sukaldeko mahaia, gehienez 75 euro, eta sukaldeko aulkiak, bakoitzeko gehienez 25 euro.
- ⇒ Galdara: gehienez 700 euro.
- ⇒ Ur-berogailua: gehienez 300 euro.

12. artikulua.- Prestazio soziosanitarioak.

Prestazio soziosanitarioen urteko gehieneko zenbatekoa, modalitate desberdinetan, 1.850 eurokoa izango da.

Begietako protesiak.

Urteko gehieneko zenbatekoa 230 eurokoa izango da —lenteak ordaintzeko gehienez 180 euro; armazoa ordaintzeko gehienez 50 euro—.

Tramitatu ondoren, bi aurrekontu eta txosten medikoa aurkezteko eskatuko da.

Ez da emango graduazio bererako baldin eta azken bost urteetan halakorik ordaindu bada, salbu eta gizarte-langileak salbuespena egitea proposatzen badu.

Hortzetako protesi eta konponketak.

Urteko gehieneko zenbatekoa 900 eurokoa izango da, pertsona bakoitzeko.

Tratamendu primarioak hartuko dira kontuan, oinarri funtzionala dutenak —ez estetikoak—, Osakidetzaren txosten medikoa aurkezten delarik, non adierazten den ez konpontzeak pertsonaren osasunean larriki eragin dezakeela, eta orobat bi aurrekontu xehatu, oinarritzko materialen erabileran oinarrituak.

Kontuan hartuko diren kontzeptuak: profilaxia / garbiketa, obturazioak, zigilatzea, enpasteak, berregiteak, endodontziak (nerbioa desbitalizatzea), zubi finkoak, hortzorde osoa, funda eta koroak, oinarri funtzionala —ez estetikoak— duten ortodontziak. Baldin eta Osakidetzak estaltzen ez baditu.

Kontuan hartuko ez diren kontzeptuak: hotzak ateratzea, portzelanaren gisako materialak eta sofistikatuagoak.

Ez da emango tratamendu bererako baldin eta azken bost urteetan halakorik ordaindu bada, salbu eta gizarte-langileak salbuespena egitea proposatzen badu.

Audiofonoak.

Urteko gehieneko zenbatekoa 500 eurokoa izango da, pertsona bakoitzeko.

Tramitatu ondoren, bi aurrekontu eta txosten medikoa aurkezteko eskatuko da.

Ez da emango tratamendu bererako baldin eta azken bost urteetan halakorik ordaindu bada, salbu eta gizarte-langileak salbuespena egitea proposatzen badu.

□ **Botika-gastuak.**

Hileko gastua 60 eurotik gorakoa bada eta osasun-sistema publikoak estaltzen ez baditu ordainduko dira gastu horiek.

Gastu puntualetarako laguntzak tramitatuko dira kontzeptu hau dela eta —pertsonak inongo diru-sarrerarik ez badu—, farmaziaren faktura ordaintzeko.

Tramitatu aurretik txosten medikoa eta errezeta inprimatua aurkeztu beharko dira.

13. artikulua.- Gastu pertsonaletarako prestazioak.

Urteko gehieneko kuota 900 eurokoa izango da, bizikidetza-unitate bakoitzeko.

Familia-laguntzarik ez duten eta muga ekonomiko larriak dituzten pertsonentzat.

Premia-premiazko kontzeptuei aurre egin beharra dagoela iritzi beharko dio gizarte-langileak.

Kontuan hartuko diren kontzeptuak: jantziak eta oinetakoak, garbitegia, behar denerako dirua. Bidaiak, familia-egoera larriak edo aparteko arrazoiak direla eta —atzerritarren dokumentazioa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak...—.

14. artikulua.- Hileta-gastuetarako prestazioak.

Prestazio hau udal-eskumenekoa da, Toki Jaurbidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen III. kapituluko 25. artikuluko k letran araututakoaren ildotik.

Bizikidetza-unitateak ehorzketak berekin dakartzan gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez duenean tramitatzen da.

15. artikulua.- Gizarteratzeko laguntzak.

Familia-bizitza eta lana edo prestakuntza uztartzeko erraztasunak ematea da gizarteratzeko laguntzen xedea.

Baremo hau aplikatuko da:

- Baldin eta bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak —zerbitzua ordaindu ondoren— diru-sarrerak bermatzeko errentatik beherakoak badira, zerbitzu horren ehuneko 100 finantzatuko du prestazio honek, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoaren mugarekin.

- Baldin eta bizikidetza-unitatearen diru-sarreraren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea diru-sarrerak bermatzeko errentari ehuneko 30 gehitzetik ateratzen dena baino handiagoa bada, ez da prestazioa emango.

- Formula honen bitartez kalkulatu da:

$$DBE + \% 30 - (\text{benetako diru-sarrerak} - \text{zerbitzuaren kostua}) = X$$

Baldin eta $X \geq 0$ baino handiagoa bada, prestazioa dagokio.

Baldin eta $X < 0$ edo txikiagoa bada, ez dagokio prestazioa.

- Eskatzaileak egingo dituen lan- edo prestakuntza-jarduerak Familian Esku Hartzeko Planean jasota egon beharko dute.
- Eskatzaileak bere kargu dituen pertsonen haren bizikidetza-unitatekoak izan behar dute, eta hura bere kargu har lezakeen beste inor ez izan hartan.

III. KAPITULUA.- PROZEDURA-ARAU KOMUNAK.

16. artikulua.- Prozeduraren instrukzioa

Prestazio-eskabideak idatziz egin beharko dira, eredu ofiziala baliatuz. Eskabidearekin batera, eskatzen den prestazioetako bakoitzeko ezarritako betebeharrak betetzen direla justifikatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikuluan eta hurrengoetan daude jasota administrazioen arteko harremanak arautzen dituzten printzipioak; besteak beste, administrazio publikoak elkarlanean aritzea, koordinatzea eta lankidetzan aritzea, baita kudeaketaren efizientzia ere.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 43. artikuluan, honela dio: *Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarrekiko lankidetzaz eta koordinazio-betebeharraren arabera jardungo dira sistemak eraginkortasunez eta eragimenez funtziona dezala bermatzeko*. Horrenbestez, Administrazioak lehendik ez daukan dokumentazioa bakarrik aurkeztu beharko dute eskatzaileek.

Prestazioak tramitzatzeko behar duten informazio eta orientabide guztia emango diete Udalaren gizarte-zerbitzuek eskatzaileei.

17. artikulua. Baliabide eta laguntza ekonomikoak aztertzea

1. Eskatzaileak edo haren bizikidetzaz-unitate ekonomiko independenteko kideek eskuratzeko eskubidea izan lezaketen izaera ekonomikoko baliabide eta prestazio sozialak oro oso-osorik baliarazi diren egiaztatuko du Udalak.

Honako hauetan ulertuko da eskubideak oso-osorik baliarazi direla:

⇒ Lan-arloko jurisdikzioarekin zerikusia duten kasuetan, dagokion ebazpena ematen delarik, edo, halakorik ezean, gutxienez hiru hilabete lehenago eskubidea, errekerimendua edo salaketa behar den moduan aurkeztu delarik.

⇒ Gainerako kasuetan, eskubidea, errekerimendua edo salaketa behar den moduan aurkezten delarik, atzera egin edo uko egiten ez bazaio, salbu eta Udalaren gizarte-zerbitzuek aintzat hartzen dituzten aparteko zirkunstantziak egokitzen direlarik.

2. Eskatzailea edo haren bizikidetzaz-unitate ekonomiko independenteko kideak baliarazi ez diren izaera ekonomikoko eskubideen hartzekodun badira —elikagaietarako eskubidea barne, ezkontideen elkarbizitza benetan amaitu dela egiaztatzen den kasuetan—, dosieraren instrukzioa bukatu aurretik indarrean dagoen legedian xedatutakoaren ildotik bere eskubideak baliaraztera premiatuko du Udalak eskatzailea.

3. Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetze aldera, beharrezko duten informazioa emango die Udalak interesdunei dituzten eskubideen inguruan, baita horiek gauzatzeko beharrezko diren tramiteen inguruan ere.

4. Eskatzaileak ez badu betetzen 2. paragrafoan adierazitako betebeharra, atzera egin duela ulertu da, eta hala jasoko da ebazpenean, zirkunstantzia hori, gertakariak eta aplikatzekoak diren arauak aipatzen direlarik.

5. Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 2. paragrafoan adierazitako betebeharra betetzetik salbuetsi ahal izango dira eskatzaileak baldin eta, Udalaren gizarte-zerbitzuen iritziz edo ebazpen judizial baten ondorioz, beren integritateari eta segurtasun pertsonalari eragiten dien aparteko zirkunstantziarik atzematen bada, beren eskubideak baliaraztera bideratutako prozesua atzeratzea aholkatzen duenik.

18. artikulua.- Entzunaldi-izapidea

Eskatzaileak eskabidean aurkezten dituen gertakari edo frogez gain besterik kontuan hartzen badu Udalak, behar den entzunaldi-izapidea eskainiko dio, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

19. artikulua.- Ebazpena.

Dosierra osatu ondoren, alkateak edo hark ordezko izendatutako zinegotziak ebazpena emango du, eta jakinarazi egingo da hori, gehienez hiru hilabeteko epean —eskabideari Gasteizko Udalean sarrera eman zitzaion egunetik kontatuta—.

Proposamenak eta ebazpenak honako hauek jaso beharko dituzte:

- Prestazioa ematea bidezko den ala ez, eta proposamenaren arrazoibidea.
- Laguntza mota, zenbatekoa eta iraupena, halakorik bada.

Epe hori igarotzen delarik ez bada berariazko ebazpenik eman, administrazio-isiltasun positiboaren eraginak izango ditu, berariazko ebazpena emateko obligazioa gorabehera, zeinek nolahi ere, berretsi egin beharko baitu hura.

Ebazpenean adierazten diren erabakien kontra indarrean dagoen legedian aurreikusten diren administrazio- eta jurisdikzio-errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira.

20. artikulua.- Prestazioa aldatzeko, eteteko edo bertan behera uzteko prozedura.

Prozedura hauek ofizioz edo alde batek eskaturik abiarazi ahal izango dira. Abiarazi ondoren, titularrei jakinaraziko zaio, eta orobat azalduko funtsatzen duten arrazoiak eta izan litzakeen ondorio ekonomikoak, ebazteko eta jakinarazteko epearen berri emango eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak jakinaraziko. Hori guztia, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezterik izan dezaten.

21. artikulua.- Prestazioa ukatzea.

Arrazoi hauetakoren batengatik ukatu ahal izango da eskatutakoa —modu arrazoituan egin beharko da—:

- Baldintzak ez betetzea.
- Familian Esku Hartzeko Plana negoziatu eta sinatzeari uko egitea.
- Norberak bere premiei aurre egiteko modu egokirik edukitzea —edo senideen, legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen laguntzarekin—.
- Eskatzailearen premiei beste administrazio publiko batek erantzun behar izatea, prestazioaren izaeragatik edo haren bizilekuagatik.
- Behar bezala argudiatzen den beste arrazoiaren bat.

22. artikulua.- Prestazioa etetea.

Aldi batez baldintzaren bat betetzeari uzten zaiolako eten ahal izango da prestazioa, edo hartzaileak ordenantza honen 7. artikuluan adierazten diren betebeharrak bete ez dituelako.

Etetea ekarri duten zirkunstantziak bere horretan dirauten bitartean iraungo du etenaldiak, gehienez 18 hilabetez —jarraian—, epe hori igarotzen delarik bertan behera geratuko baita prestazioa jasotzeko eskubidea.

23. artikulua.- Prestazioa aldatzea.

- Bizikidetzaren unitate ekonomiko independenteko kideen kopurua aldatzearen ondorioz.
- Prestakuntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat hartu ziren baliabideak aldatzearen ondorioz.

24. artikulua.- Prestazioa bertan behera uztea.

- a) Eskatzailea hiltzearen, prestazioari uko egitearen edo Gasteizko udalerritik kanpo aldatzearen ondorioz.
 - b) Premia-egoera desagertzearen ondorioz.
 - c) Prestazioa emateko kontuan hartu ziren datuetan zerbait ezkutatu edo faltsutu izanaren ondorioz.
 - d) Prestazioaren onuradun izateko galdatutako betekizun edo baldintzetakoren bat betetzeari utzi izanaren ondorioz.
 - e) Prestazioa zertarako eman zen hartarako ez baliatzearen ondorioz.
 - f) Etenaldiak —jarraian— hamazortzi hilabeteko iraupena gaintzearen ondorioz.
- c) eta e) letretan adierazitako kasuetan, behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzularaztea erabakiko da, Gasteizko Udalaren Laguntzak eta Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan finkatutako itzularazteko prozeduraren ildotik.

25. artikulua.- Prestazioa kautelaz etetea.

Ofizios nahiz alde batek eskaturik bertan behera uzteko prozedura hasia izan ala ez, prestazio ekonomikoaren ordainketaren kautelazko etenaldia ezarri ahal izango da bizikidetzaren unitate ekonomiko independentean prestazioa aitortzeko edo mantentzeko baldintzetakoren bat galtzea dakarren egoeraren baten zantzurik antzemanaz gero.

Prestazioa kautelaz etetea erabakitzen delarik, gehienez hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da hari eutsi, eten ala bertan behera utzi.

26. artikulua.- Atzera egitea eta uko egitea.

Eskabidean atzera egin ahal izango du eskatzaileak, edo onartu zaion prestazioa jasotzeko eskubideari uko egin, Udalari idazki bat igorritik. Udalak ebazpena emango du, eta bertan jasoko zirkunstantzia hori, gertakariak eta aplikatzekoak diren arauak.

27. artikulua.- Premiazko prozedura.

Udalaren gizarte-zerbitzuetako profesionalek hala egin beharra dagoela justifikatu eta baloratzeko duten premia egoeretan, lehenbailehen emango da laguntza, horren helburua bermatzeko har litezkeen neurriak gorabehera, eta gerora onespina emango eskumena duen organoak.

28. artikulua.- Kudeaketa-arauak.

1. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak hartuko du bere gain Udal Prestazioen Programa kudeatu, ikuskatu eta oro har ebaluatzearen ardura teknikoa.
2. Udalaren gizarte-zerbitzuetan eskari soziala jasotzen delarik, premia-egoera aztertuko da, eta prestazioak emateko proposamena landuko, ezarritako baremo eta betebeharrak aintzat harturik.
3. Hori egin ondoren, prestazioa eman, aldatu, eten, ukatu edo bertan behera uzteko ebazpena emango du alkateak edo hark ordezkotako izendatutako zinegotziak, eta, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko zuzendariak erkatu ondoren, interesdunari jakinaraziko zaio.
4. Prestazioa ematea ebazten delarik, nomina egingo dute administrazio-zerbitzuek, eta Udaleko Ogasun Sailari helaraziko, finantza-erakundeen bidez ordain dadila agindu dezan, udal laguntzen urteko partidaren kontura.
5. Ebazpena ematen den hilaren erdi aldera edo bukaera aldera ordainduko dira prestazio ekonomikoen zenbatekoak. Hilean bi ebazpen ematea izango da ohiko jokabidea.
6. Titularraren legezko ezgaitasuna deklaritzen bada, edo titularrak prestazioa zertarako eman zitzaion horretarako baliatzeko obligazioa betetzen ez badu, prestazioa beste pertsona bati ordain dakiola proposatu ahal izango dute Udalaren gizarte-zerbitzuek.
7. Udalaren gizarte-zerbitzuak arduratuko dira jarraipena egiteaz, eta aldian-aldian honako hauen inguruko informazioa emateaz:
 - Programatutako helburuak lortu diren.
 - Prestazioaren egokitasuna.

29. artikulua.- Laguntzen jarraipena.

Laguntza emateko premia dagoela azaltzen duten profesionalak berak arduratuko dira premia-egoeren jarraipena egiteaz eta prestazioak zertarako baliatzen diren zaintzeaz, eta hori behar bezala egiteko behar duten informazioa edo dokumentazioa eskatu ahal izango diete onuradunei.

30. artikulua.- Ordainketa.

Laguntza emateko ebazpenean adierazten den moduan egingo da ordainketa.

Laguntza zertarako ematen den, zuzenean ordaindu ahal izango zaie ondasun edo zerbitzu hori eskaintzen duten pertsona edo entitateei.

IV. KAPITULUA.- PRESTAZIOAK ITZULARAZTEKO PROZEDURA

1. Onuradunak jaso behar ez zuen prestaziorik jaso badu, edo jaso behar ez zuen zenbatekoa, hori itzultzeko obligazioa izango du.

2. Ofizios ekingo zaio itzularazteko prozedurari, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. kapituluan jasotzen diren administrazio-prozedurei buruzko xedapen orokorrek arautuko dute, eta orobat aplikatuko dira Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 23. artikulua eta hurrengoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berriaz geratuko da indargabetuta 1999ko ekainaren 11an onetsi zen Udal Prestazioen Programaren Ordenantza, eta ordenantza honetan xedatzen denaren kontrako diren maila bereko edo beheragoko arauak oro.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau.

Ordenantza honetan berriaz jasotzen ez direnetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aintzat hartuko da.

Familia-unitatearen gaur egungo diru-sarrera eta ondasunen zinpeko aitortpena

Declaración jurada de ingresos y bienes actuales de la unidad familiar

(2/2)

Bizikidetzaren -unitatearen ondarea / Patrimonio de la UC				
Ondasun higigarriak (libretak, akzioak, ibilgailua, ezkontza-puskak ...) Bienes muebles (libretas, acciones, vehículo, ajuar...)			Higiezinak. Hiri- edo landa- funtsak Bienes Inmuebles. Fincas Urbanas y/o rústicas	
Ordena Zk Nº orden	Deskribapena Descripción	Balioa Valor	Deskribapena Descripción	Katastro- balioa Valor Catastral
GUZTIRA/ TOTAL			GUZTIRA/ TOTAL	

BAIMENA EMATEN DU

Eskatutako laguntza ematen bazaio, dagozkion ordainagiriak kargatzeko edo prestazioa ordaintzako kontu zenbaki hau erabil dadin:

Banketxea edo Kutxa - *Banco o Caja*

Kontu zenbakia - *Número de cuenta*

Titularren izen-abizenak - *Nombre y apellidos de la persona titular de cobro*

NAN - *DNI*

ESKATZEN DU

Behar diren txostenak eta tramiteak egin ondoren, goian aipatu duen prestazioa / zerbitzua eman dakiola.

AITORTZEN DU

Eskabide honetako datu guztiak egiazkoak direla eta konpromisoa hartzen du horietan gertatzen diren aldaketa guztien berri emateko, eskatzen den prestazioa edo zerbitzua emateari begira ondorioz baldin badute.

Era berean aitortzen du badakiela zer erantzukizun bereganatzen duen aitortpenean datuak ezkatutu edo faltsutuz gero, eta hala egiteak emandako prestazioa edo zerbitzua galtzea ekarriko duela.

BAIMENA EMATEN DU

Gizarte Gaiena eta Adinekoen Sailari, ondoren adierazten diren erakundeei Udalaren Gizarte Prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko eta horren jarraipena egin eta kontrolatzeko beharrezko duen informazioa kontsultatu edo eskatzeko: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari, Erregistrozaleen Elkargoari, Eusko Jaurlaritzari, Lanbideri (DBE), Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, eta AFAREN Foru Ogasunari. Halaber, baimena ematen dio edozein erakunde edo administrazio publikoren datu-basetik xede berbera lortzeko beharko lukeen beste edozein datu pertsonal eskuratzeko. Baimen hori baliozkoa egin ahal izango da, horretarako arrazoi justifikaturik baldin bada.

Vitoria-Gasteizen, (e)ko ren (e)an

AUTORIZA

A que, en caso de que le sea concedida la ayuda solicitada, sean cargados los recibos correspondientes o abonada la prestación en el número de cuenta:

SOLICITA

Que, previos los informes y trámites oportunos, le conceda la prestación antes indicada.

DECLARA

Que todos los datos que presenta con esta solicitud son ciertos y se compromete a informar oportunamente de cuantas variaciones respecto a los mismos puedan producirse y afectar a la concesión de la prestación solicitada.

Asimismo, declara conocer la responsabilidad en la que incurre en caso de ocultación o falsedad de la declaración, que dará lugar a la pérdida de la prestación o el servicio concedido.

AUTORIZA

Que el Departamento de Asuntos Sociales y de las Personas Mayores consulte y/o solicite la información necesaria para el reconocimiento, seguimiento y control del derecho a percibir la Prestación Social Municipal a la Tesorería General de la Seguridad Social, al Instituto Nacional de la Seguridad Social, al Registro Nacional de Propiedades, al Gobierno Vasco, Lanbide (RGI), al Instituto Foral de Bienestar Social y a la Hacienda Foral de la DFA, así como de cualquier otro dato de carácter personal que sea necesario para la finalidad mencionada, a obtener de las bases de datos de cualquier Organismo o Administración Pública. Dicho consentimiento podrá ser revocado cuando exista causa justificada para ello.

En Vitoria-Gasteiz, a de de

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren izenpea
Firma de la persona solicitante o representante legal

Adierazitako agiriak aurkezteko 10 egun daude, eskabidea sartzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Epe hori amaitu eta agiriak aurkeztu ez badira, eskatzaileak eskaera atzera egin duela ulertuko da, urtarilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (BOE, azaroak 27) 71. artikuluko xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

Dena den, ebazpena eman eta hori jakinarazteko epea, eskabidearen ondorengo egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

Aipatu epean berriazko ebazpena eman ezean, honako ondorioak izango ditu administrazioaren isiltasunak:

- Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da.

- Epe horretan berriazko ebazpenik eman ezean, onartutaz joko da eskabidea.

“Udalaren gizarte laguntza eta zerbitzuak kudeatzea” beste helbururik ez duten eta Gasteizko Udalaren ardurapean dauden fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera. Administrazio Publikoek dossierrean dauden datuak erkatu eta egoki iruditzen zaizkien egiaztapenak egin ahal izango dituzte; beste erakunde publiko eta pribatu batzuei ere behar beste datu eta txosten eskatu ahal izango dizkiete.

La documentación solicitada se presentará en el plazo de 10 días, contados a partir del día siguiente al de entrada de la solicitud.

Transcurrido dicho plazo sin haber completado la documentación, se le tendrá por desistido/a de su petición, previa resolución, de acuerdo con el artículo 71 de la Ley 30/1992 del 26 de noviembre del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (B.O.E. 27 de noviembre), modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

El plazo para resolver y notificar la resolución será de 3 meses y se computará, en todo caso, a partir del día siguiente a la presentación de la solicitud.

Si en el plazo señalado no se hubiera dictado resolución expresa, con el silencio administrativo se entenderá estimada la solicitud.

Sus datos personales serán incluidos en ficheros responsabilidad del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y cuya finalidad es "la gestión de prestaciones y servicios sociales municipales". Puede Vd. ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/99 dirigiéndose a las Oficinas de Información del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Se autoriza a las Administraciones Públicas a cotejar los datos aportados en el expediente y realizar las comprobaciones pertinentes, pudiendo recabar cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas.

II. ERANSKINA.- DOKUMENTAZIOA.

Identitatea / Identidad	
<input type="checkbox"/>	Eskatzailearen eta bizikidetz-unitateko 16 urtetik gorako gainerako kideen identitatea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia. Fotocopia del documento acreditativo de la identidad de la persona solicitante y de los demás miembros de la unidad de convivencia de 16 años o más
<input type="checkbox"/>	Familia-liburuaren fotokopia, edo, halakorik ezean, zaintza, jagoletza edo tutoretzaren egiaztatzea. Fotocopia del Libro de Familia o en su defecto documento acreditativo de la guarda, custodia o tutela
<input type="checkbox"/>	Banantzeko eskaria, dibortzio-epaia edo banantzea tramitatzen ari delako egiaztatzea, edo epaitegiaren ziurtagiria —behin-behineko neurriak hartzen ari direla—. Demanda de separación, sentencia de divorcio o acreditación de la tramitación de la separación, o certificado del juzgado de que las medidas provisionalísimas se están llevando a cabo
<input type="checkbox"/>	Elkartze Zibilen Udal Erregistroan izena emanda egotearen egiaztatzea, edo erantzukizuneko aitortzea. Certificado de estar inscrito en el registro municipal de uniones civiles y/o declaración responsable.
<input type="checkbox"/>	Desgaitasun-graduaren aitortzea. Reconocimiento de grado de discapacidad
<input type="checkbox"/>	Mendekotasun-egoeraren aitortzea. Reconocimiento de situación de dependencia
<input type="checkbox"/>	Tratu txarren kasuan, ebazpen judizialaren, fiskalaren txostenaren edo babesteko aginduaren fotokopia. En caso de malos tratos, fotocopia resolución judicial/informe fiscal/orden de protección
<input type="checkbox"/>	Europar Batasunetik kanpoko herritarrak Ciudadanos extracomunitarios
<input type="checkbox"/>	Errefuxiatuak: identitate-agiria edo horren eskabidea. Refugiados: documento de identidad o su solicitud
<input type="checkbox"/>	Aberrigabeak: aitortze-txartela Apátridas: tarjeta de reconocimiento
<input type="checkbox"/>	Asiloa eta ordezkoko babesa: egiaztatzen duen dokumentazioa Asilo y protección subsidiaria: documentación acreditativa
Bizilekuaren marko fisikoa / Marco físico de residencia	
<input type="checkbox"/>	Kontratua: alokairua, berralokatzea, besterekin batera alokatzea, ostata, logela hartzea. Turismo-aloiamenduaren faktura. Harrera-zentroan bizi izatearen egiaztatzea, dagozkien ordainagiriekin batera, OHZ. Contrato de arrendamiento, subarriendo, coarriendo, hospedaje o alquiler de habitación. Turismo-aloiamenduaren faktura. Certificado de residencia en centro de acogida, acompañados de sus correspondientes recibos, IBI
<input type="checkbox"/>	Etxebiden izena eman izanaren eskabidea. Solicitud de inscripción en Etxebide
<input type="checkbox"/>	Etxebizitzaren jabetza-eskribura, edo hipoteka-maileguarena. Escritura de propiedad de la vivienda y /o del préstamo hipotecario
Erroldatzea / Empadronamiento	
<input type="checkbox"/>	Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri bateko errolda-ziurtagiria. Certificado de empadronamiento en otro municipio de la Comunidad Autónoma Vasca
<input type="checkbox"/>	Espainatik kanpo zenbat denboran bizi izan den erakusten duen egiaztatzea (kontsulak emana) Certificado consular de periodo de residencia fuera de territorio español
Baliabideak eta Ondarea / Recursos y Patrimonio	
<input type="checkbox"/>	Bizikidetz-unitate ekonomiko independentearen kide guztien diru-sarreraren eta ondarearen zinpeko aitortzea, eredu normalizatuan. Declaración jurada de ingresos así como del patrimonio de todos los miembros de la unidad de convivencia según modelo normalizado
<input type="checkbox"/>	Lan-kontratuaren eta azken hiru nominen fotokopiak. Fotocopia del contrato de trabajo y de 3 últimas nóminas
<input type="checkbox"/>	Prestazioa edo subsidioa jasotzen duten langabeak: ebazpenaren fotokopia. Desempleados /as con prestación o subsidio: fotocopia de la resolución
<input type="checkbox"/>	Lan egiteko adinean dauden bizikidetz-unitateko kide guztien izen-ematea, enplegu- edo zerbitzu-eskatzaile gisa, edo, ikasten ari izatearen ziurtagiria. Inscripción como demandante de empleo o de servicios de todos los integrantes de la unidad de convivencia en edad laboral o en su caso certificado de estar estudiando
<input type="checkbox"/>	Pentsiodunak: Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, edo pentsioa beste moduren batean egiaztatzea. Pensionistas: Certificado del INSS o acreditación de la pensión por otros medios
<input type="checkbox"/>	Hitzarmena: elikadura-pentsioa edo pentsio konpentsatzailea, edo, kasua bada, ordaindu ez izanaren salaketa. Convenio regulador : pensión alimentos y/o compensatoria o en su caso denuncia del impago
<input type="checkbox"/>	Eskatzailearen eta bizikidetz-unitateko kideen kontu guztien egoerari buruzko banku-ziurtagiriak: lehen orria eta azken sei hilabeteetako mugimenduak. Certificados bancarios relativos al estado de todas las cuentas del solicitante y miembros de la unidad de convivencia: 1ª hoja y movimientos 6 últimos meses.

<input type="checkbox"/>	Beste banku-produktu batzuen ziurtagiriak (epe finkoak, inbertsio-funtsak, bonoa...), eta finantza-produktuenak (mailegu pertsonalak...) Certificados de otros productos bancarios (plazos fijos, fondos de inversión, bonos,...) y financieros (préstamos personales,...)
<input type="checkbox"/>	Azken ekitaldiko datu fiskalen eta errentaren ziurtagiria, edo aitortpena egin beharrik izan ez delako ziurtagiria, Foru Ogasunak emana. Certificado de datos fiscales y renta del último ejercicio fiscal o en su caso certificado de no haber tenido obligación de declarar en Hacienda Foral
<input type="checkbox"/>	Norberaren konturako langileak: azken ekitaldiko errenta-aitortpena, enpresa-jardueraren errendimendua. Trabajadores/as por cuenta propia: declaración renta del último ejercicio fiscal, rendimiento actividad empresarial/profesional
<input type="checkbox"/>	Ondasun higiezinaren ziurtagiria, Gasteizko udalerritik kanpo jabetzarik edukiz gero. Certificado de bienes inmuebles en caso de tener propiedades fuera del municipio de Vitoria-Gasteiz
<input type="checkbox"/>	Jatorriko lurraldean ondasun higiezinaren titular ez izatearen zinpeko aitortpena, sei hilabeteko epean ziurtatuta. Declaración jurada de no ser titular de bienes inmuebles en el país de origen, certificado en el plazo de seis meses
<input type="checkbox"/>	Ibilgailuaren fitxa teknikoaren eta zirkulazio-baimenaren fotokopia. Fotocopia de la ficha técnica y permiso de circulación del vehículo
Beste / Otros	
<input type="checkbox"/>	Eskatutako prestazioari dagozkion gastuak egiaztatze fakturak. Facturas justificativas de los gastos relativos a la prestación solicitada
<input type="checkbox"/>	Eskatutako prestazioari dagokion gastuaren bi aurrekontu. Dos presupuestos del gasto relativo a la prestación solicitada
<input type="checkbox"/>	Osakidetzaren mediku-txostena. Informe médico de Osakidetza
<input type="checkbox"/>	Azken bost urteetan egindako transmisio, salmenta edo dohaintzen eskritura edo agiri pribatuak. Escrituras o documentos privados de transmisiones, ventas o donaciones efectuadas en los últimos cinco años
<input type="checkbox"/>	Oinordetza-eskritura eta banaketa-koadernoak, azken bost urteetan jaraunspenik izan bada. Escritura de herencia y cuaderno particional en caso de herencia en los últimos cinco años
<input type="checkbox"/>	Kontuaren titularraren jakinarazpena, banku-erakundeak zigilatuta. Notificación de titular de cuenta sellado por la entidad bancaria.
<input type="checkbox"/>	Beste Otros